

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

5209

AGINDUA, 2019ko urriaren 26koa, Hezkuntzako sailburuarena, Euskadiko Eskola Kontseiluko kideak kargutik kendu eta kide berriak izendatzen dituena.

Euskadiko Eskola Kontseiluei buruzko urriaren 28ko 13/1988 Legearen 10. eta 12. artikuluetan, lege hori garatzeko, Euskadiko Eskola Kontseilua arautzen duen martxoaren 7ko 55/1989 Dekretuaren 4., 5., 7. eta 8. artikuluetan, eta Euskadiko Eskola Kontseiluaren Funtzionamenduaren Arautegia onartzen duen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburuaren 1990eko apirilaren 4ko Aginduaren 5. eta 15. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorritz, eta BIGEren proposamenez, honako hau

EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.– Susana Aribayos Gutierrez andrea izendatzea Euskadiko Eskola Kontseiluko kide, Ana Puente Martínez andrearen ordezkari gisa, eta Euskadiko unibertsitateaz kanpoko ikasleen gurasoen ordezkari.

AZKEN XEDAPENA

Agindu honek argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko urriaren 26a.

Hezkuntzako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.